

Lezoko literatur sarira 381 lan aurkeztu dira

Ipuin eta olerki lehiaketako irabazleek abenduaren 12an jasoko dute oparia.

Lezo. Andreone udal liburutegiak jakitera eman ditu XV. Jon Garbizu olerki sariko eta XV. Lope Isastikoa ipuin lehiaketako irabazleak. Oso zaila izan zaio epaimahaiari aukeraketa egitea 381 lan aurkeztu baitira aurtengoan. Olerkietan adinaren arabera maila desberdinak daude eta txikienatik gaztetxoenera hauek izan dira irabazleak: Maddi Lopetegi (Klin-klan! euriak kristalean), Ilargi Zipitria (Olerkiak), Beñat Urbizu (Nere poemak) eta June Ugalde (Meta). 14 eta 15 urte bitarteko maila hutsik geratu da.

Ipuin lehiaketako garaileak Unai Cuesta (Zezen beltza), Maddi Taboada (Ilargia eta saga), Iñigo de la Fuente (Jaizkibeleko bi kaioak), Sara Dorronsoro (Bizitza krudela) eta Igor Pariente (Betiko bakarrik) izan dira. Sari banaketaren ekitaldia ostiralean 19.00etan udal liburutegian egingo dute. >a.m.